

Esposizioa (I): esposizio-neurgailuak

Itziar Nogeras*

Aurreko atalean, esposizio egokia lortzeko pelikularen sentikortasuna eta subjektuaren argitasuna ezagutu behar direla esan genuen. Lehenaz aztertu genuen orduan. Bigarrenari, oraintxe bertan ekingo diogu.

Zelula fotoelektrikoa. Esposimetroetan erabiltzen den argiarekiko sentikorra den osagaia. Berez, argiaren eraginez elektrizitatea sortzen duten osagaiak izendatu beharko lirake horrela (seleniozko zelula, adib.), baina, hedaduraz, argiak aldaketak eragiten dizkioneko erresistentzia elektrikoaren osagaiak izendatzeko ere erabiltzen da (Cds edo kadmio sulfurozko fotoerresistentzia, adib.).

Subjektuak edo gaiak duen argitasuna neurtu egin behar da, ondoren zein diafragma eta obturatze-abiadura jarri behar dugun jakin ahal izateko, beti ere, neurketak edo irakurketak pelikularen sentikortasunarekin bat etorri behar duela ahaztu gabe.

Neurgailurik zehatzenak fotometro edo esposimetroak dira. Horiez gain, fabrikatzaileek pelikularen argibideetan jartzen dituzten esposizio-terlatuak ere badiara. Taula horiek, ikur klimatologikoa dakartzate. Ikurretako bakoitzak, argi-egoera bati dagokio (oso eguzkitsua, argitsu, hodeitsu samar, hodeitsu edota zero estaliari) eta bakoitzak, abiadura eta sentikortasun jakin batez zein diafragma jarri behar den adierazten du, abiadura aldatuz gero diafragma proportzionalki aldatu beharko litzatekeelarik.

Argibide horiek, kanpoaldeetan gai konbentzionalen argazkiak ateratzeko izan ohi dira. Egoera

bereziagoetan (argi-uniformetasun txikiko kasuetan, barnealdeetan argi artifizialez lan egitean edo sentikortasuna aldatzen denean, adib.), ez dute behar adina informazioa ematen eta fotometroa erabiltzea ezinbestekoa da.

Fotometroak argiarekiko sentikorra den gainazala (**zelula fotoelektrikoa** nahiz fotoerresistentzia) du, subjektuak isladatzen duen argia neurtu edo irakurri ahal izateko.

Bi eratakoa izan daiteke fotometroa: eramangarria ala kamerarekin batera datorrena.

Fotometro eramangarria


Dagokion leihatilan erabiltzen ari garen pelikularen sentikortasuna jartzen zaio fotometroari. Gainazal sentikorra subjekturantz zuzentzen da eta orratza askatzekoa sakatuz, hark isladatzen duen argi-intentsitatea irakurketa-escalan azaltzen zaigu. Irakurketa, kalkuladorean jarri eta irakiduren eraztunaren erreferentzia harekin bat etorri arte jiratu behar da. Horrela, esposizio egokia lortzeko behar diren diafragma eta abiaduren arteko konbinazioak azalduko zaizkigu.


Fotometroaren gainazal sentikorra, argiaren bitartez elektrizitatea sortzen duen (eta, hortaz, pilarik behar ez duen) seleniozko zelulaz zein sentikorragoa den (baina, pilak behar dituen) kadmio sulfurozko fotoerresistentziaz (CdS-az) osatuta egon daiteke.

Lehen motatakoetan, argi indartsua egonez gero mozorroa erantsi behar zaio zelula fotoelektrikoari.

Kamerari erantsitako fotometroa

Gaur egungo kamera gehienek beren barnean fotometroa dara-





2. irudia. SLRaren fotometroa eta irakurketaren aurkezpena. SLR geihenen fotometroak TTL erakoak dira. Berauek, kameraren gorputzean doan pilaz elikatzen dira. Horien informazioa, bisorean ikus daitekeen enfokatzeko pantailan azaltzen da.

Informazio hori azaltzeko hiru era arruntenak dauzkagu ondoko irudian: sinpleenak (goikoak), ibilbide erdian esposizio egokia adierazten duen orratza du; erdikoak, diafragma- eta abiadura-balioak ere erakusten ditu; eta, behekoak, aurrekoaren antzeko informazioa argi-adierazlearen bitartez ematen du.

mate. Berau, gainazal sentikorra kamera barnean zein kanpoan daramana izan daiteke. Gainazal sentikorra, lehen aipatutako bi motetakoa izan daiteke, gainera: seleniozkoa nahiz kadmio sulfurozkoa (baita modernoagoa den siliziozkoa ere). Bigarrena da, dena dela, erabiliena.

Gainazal sentikorra kameran kanpoan dagoenean, ez du objektiboa zeharkatzen duen argia neurtzen; zuzenean subjektutik

doakiona baizik. Horrek, aurreraxeago ikusiko dugunez, kameran barnean joanda saihests daitezkeen akatsak sor litzake. SLR kamerek, eskuarki, CdS erako eta TTL sistemako neurgailua darabilte.

TTL, ingelesezko "through the lens" en siglak dira. Gainazal sentikorra kameraren barnean egonik, "objektiboa zehar" iragaten den argi-intentsitatea irakurtzen duela esan nahi du. Horrela, diafragma- zein abiadura-alda-

ketak eginez gero, objektiboa aldatuz gero zein filtroak jarritz gero, arazorik ez da egongo; fotometroak guztia kontutan hartuko baitu. Fotometro hauek, gainera, kameraren abiadura- eta irekidura-aginteetara akoplatuta daude eta, zenbaitetan, automatikoak izaten dira. Irakurketaren informazioa bisorearen bitartez ikus daitekeen enfokatzeko pantailan azaldu ohi da; orratzez nahiz argi-adierazlez, azaldu ere. Neurgailu horiek esposizioa ondoko era hauetan kontrola dezakete: erabat automatikoki, lehenasuna irekidurari emanez, lehenasuna abiadurari emanez zein eskuz.

3. irudia. Kamerari erantsitako fotometroa eskuz erabiltzeko era. Hirugarren pausoari oharra egin behar zaio: TTL objektibok subjektuaren argia modu desberdinetan neur dezakete. Batzuek, irudiko argien irakurketa orokorra egiten dute. Gutxi batzuek, irudiaren erdialdeko irakurketa egiten dute. Eta beste batzuek, lehenasun zentralekoak, batez ere erdialdekoa kontutan hartuz irudi osoaren irakurketa egiten dute.




1. Kameraren gorputzeko aginte egokian ISO (edo DIN) sentikortasuna finkatu.



2. Diafragma edo abiadura finikatu, higiduraren, nahi den eremu-sakoneraren, eta abarren arabera.




3. Enfokatu. Fotometroa puntuala edota lehenasun zentralekoak bada, interesguneari begira enkoadratu.



4. Diafragma- (edo abiadura)-eraztuna bisoreko adierazleak esposizioa egokia dela adierazi arte jiratu.



PENTSAMENDU GARAIKIDEA



5. **Gizakia bere arimaren bila (I)**
Jung, C.G.
6. **Gizakia bere arimaren bila (II)**
Jung, C.G.
7. **Munduaz dudak ikuspegi**
A. Einstein
8. **Industri Iraultza (I)**
Landes, D.S. eta beste

Harpidedun egin zaituzte gure liburuak merkeago lortuz.

HARPIDETZA-TXARTELA

Izen-deiturak _____

Helbide _____ Tel. _____

Herria _____ Post. Kod. _____

Bankua/Aurrezki Kutxa _____

Sukurtsala _____

Kontu-zenbakia _____

GAIK argitaldaria / S. Bartolome, 36-behea / Tel. 471304/
20007 - DONOSTIA

Esposizioaren kontrola erabat automatikoa denean, sistemak berak irekidura eta abiadura zehazten ditu, aldez aurretiko programa baten arabera (maiz bisorean inolako oharrik erakutsi gabe). Erabilterraza da; oso eroso bapateko argazkietarako edo hasiberrientzat; baina, ez du jokatzeke aukerarik ematen; programaturiko baldintzak ezin baitira aldatu.

Hurrengo bi aukerak erdiautomatikoak dira eta bisorean azaldu ohi da informazioa. Lehenak, irekidurari lehentasuna ematen dio. Horrek, argazkilariak diafragma hautatu eta kamerak automatikoki abiadura egokia hautatzen duela esan nahi du. Sistema hau eremu-sakonera kontrolatzea garrantzitsua deneko argazkietan (paisaje, natura hil edo hurbilpeneko argazkietan, adib.) erabiltzeko egokia da. Abiadurari lehentasuna ematen zaionean, argazkilariak abiadura hautatu eta kamerak automatikoki diafragma egokia erabakitzen du. Higidurazko argazkietarako sistema egokia da.

Eskuarki, bi lehentasun horiek aukeran izaten dituzte eskuzko kontrola ere izaten duten kamerak.

Eskuzko kontrolaren bidez, hitzak berak dioenez, guztia argazkilariaren esku dago. Irekidura zein abiadura berak hautatuko ditu, fotometroak argi-esposizioa egokia dela adierazi arte. Sistemarik motelena da, baina pila gutxien gastatzen duena eta sormenari bide zabalena uzten diona. Seguruenik, lerro gutxitan azalpen tekniko eta teoriko ugari pilatu direla irudituko zaizu, irakurle. Hurrengoan, esposizioaren irakurketa askoz era praktikoa-goaz azalduko dugu eta lerro hauek guztiak asko arinduko zaizkizula zalantzarik ez izan. Hala bis.



* ZETIAZ - Elhuyar